



Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

Euskal kasuan izandako
**bizitzeko eskubidearen
aurkako urraketen
argazkiak, herriz herri**

Barakaldo, 1960-2010

(Bigarren edizioa)

2016ko azaroa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

Euskal kasuan izandako
bizitzeko eskubidearen
aurkako urraketan argazkiak,
herriz herri

Barakaldo, 1960-2010

Bigarren edizioa

2016ko azaroa

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Aurkibidea

| | |
|-------------|---|
| Aurkezpena. | 6 |
|-------------|---|

I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**.

| | |
|---|----|
| 1. ETAm eta ETAk bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. | 9 |
| 2. Segurtasun-indarrek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. | 27 |
| 3. Egiletza argitu gabe duten urraketak eta bestelakoak. | 33 |

II. Behar beste argitu ez dien **kasuak**.

| | |
|-----------------------------------|----|
| Erabilitako iturri eta zerrendak. | 43 |
|-----------------------------------|----|

Aurkezpena

2015eko irailaren 4an, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak jendurrean aurkeztu zituen “Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan argazkiak, herriz herri (1960-2010)” izeneko dokumentuak. Guztira, 130 liburuxka dira, beste horrenbeste udalerriri buruzkoak. Ekitaldia egin zen Gogora – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren egoitzan, Iñigo Urkullu buru zela, eta, han, liburuxka hauek banatu zitzaizkien alkateei.

Erretratu bakoitzak 1960 eta 2010 bitartean herri bakoitzean gertatu diren indarkeriazko heriotzen inguruan dagoen informazioa ematen du; betiere euskal kasuarekin lotuta dauden edo egon daitezkeen heriotzei buruzkoa. Helburua da memoriari buruzko udal-politika sustatzeko informazioa ematea, eta biktimengana eta haien senitartekoengana hurbiltzea. Egia esan, berehalakoan nabaritu zen dokumentu horiek udalen esku utzi izanaren eragina. Izan ere, 2014arekin alderatuta, laukoiztu egin zen 2015eko azaroaren 10ean Memoriaren Eguna ospatu zuten udalen kopurua.

Lehen edizio haren aurkezpenean argi adierazi zenez, bildutako kasuetatik gehienetan, dagoen informazioa bat dator eta nahikoa da. Dena den, kasu batzuei buruz, batez ere hirurogeiko hamarkadan, hirurogeita hamarreko hamarkadan eta laurogeiko hamarkada oso hasita zegoen arte izandakoetan, ez dago nahikoa informaziorik edo bertsio kontraesankorrek eta datu nahasgarriak agertzen dira; horrenbestez, oraindik ezin da azken ondorioa atera. Alde horretatik, beraz, azpimarratu zen lan hori ezin zela behin betiko amaitutzat eman, eta zabalik zegoela osatuz joateko.

Aurkezpena egin zenetik, ekarpen eta kontsulta ugari egin dituzte eraginpekoek, udalek zein herritarrek. Eta ohar horiei esker, asko hobetu da hasierako dokumentua. Hala, hartutako konpromisoa garaiz bete ahal izan da, eta prest da bigarren edizioa: 2016ko azarotik, udalen esku da, eta herritarrek ere eskura dezakete Gogoraren eta Bakegintza eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusiaren weguneetan.

Data horretatik aurrera eta bi webgune horietan, beste informazio-gune bat ireki da, “Aitortutako biktimak” izenburupean: informazio zehatza ematen du lege-arau baten babesean errekonozitu diren biktimei buruz. Terrorismoaren biktimei dagokienez, 1960tik aitortutako kasuak biltzen ditu, biktimei erreparazioa egiteko onartu diren legeak oinarritzat hartuta: 29/2011 Legea, 32/1999 Legea (Estatuko araudia) eta 4/2008 Legea (araudi autonomikoa). Funtzionario publikoek bizitzeko eskubidea urratu dieten biktimei dagokienez, 107/2012 Dekretuak aitortutako kasuak jaso dira, 1960tik 1978ra bitartekoak.

Aitortutako biktima horiez gain, badira aitortzeke dauden biktimak ere. Horietako asko datozen urteotan uztailaren 28ko 12/2016 Legea garatu zain daude: Eusko Legebiltzarrean onartu berri da, Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko. Beste kasu batzuk, berriz, ez daude argi ikerketarik egin ez zelako, bertsio kontrajarriak daudelako, urraketak nork edo zergatik egin zituen argi ez dagoelako edo ebazpen judizialaren zain daudelako.

Puntu honetan, beraz, bi datu-baseak elkarren osagarri dira. “Aitortutako biktimak” izeneko gunean, lege baten babesean aitortpena jaso duten biktimei buruzko informazioa biltzen da. *Udal-erretratuak* ez dira biktimei errekonozimendu ofiziala emateko agiri ofizialak, informazioa ematekoak baino. Zerrenda horretan, aitortutako biktimei buruzko informazioa ematen da, batetik, eta prozedura judizial bidez edo lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez aitortpena jaso zain dauden biktimena ere bai, bestetik.

60/147 Ebazpena da nazioarteko zuzenbideak biktimei zuzendutako politikak egiteko duen bitartekorik garrantzitsuen; Nazio Batuen Batzar Nagusiek onartu zuten, 2005ean. Ebazpen horren 9. artikuluan berariaz jasota dago pertsona bat biktimatzat hartuko dela, alde batera utzita kasua judizialki erabat argitu den ala ez. Horrela izan ez balitz, terrorismoaren edo bestelako indarkerien biktimak ezin izango lirateke biktimatzat hartu, baldin eta kasu horiek epaitu edo argitu gabe baleude, eta, ildo horretatik, ezin izango litzazieke erreparaziorik egin errekonozimendu-lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez.

Ez dira sartu *Udal Erretratu* hauetan nazioarteko zuzenbidearen estandar horien arabera bizitzeko eskubidearen urraketatzat hartu ezin daitezkeen kasuak, gertatutako unean zegoen indarkeria testuinguruarekin lotura zuzena izanik ere. Hor sartzen dira suizidioak, istripuak, indarkeriazko ekintza batean gertatutako heriotzak, polizia-kidegoen artean egindako ustekabeko tiroak...

Oinarri horien gainean, *Udal Erretratuak* egiteko, biktimei buruz argitaratuta dauden zerrenda guztiak aztertu dira: Barne Ministerioak, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, biktimen elkarteek, komunikabideek zein egile partikularrek egindakoak. Udalerrri bakoitzeko liburuxkan sartu dira hala bere lur-eremuan izan diren biktimak, nola, ekintza bera beste nonbait gertatuta ere, herri horretakoak diren edo bertan bizi diren biktimak.

Bi ataletan egituratu da edukia: lehenengoan, bizitzeko eskubidearen urraketa nahikoa frogatutaz dagoen kasuak jasotzen dira, egileen eta hurrenkera kronologikoaren arabera antolatuta. Bigarrean, berriz, nahikoa argitu ez direla-eta kalifikazio hori behin betiko baietsizat ezin eduki dezaketen kasuak biltzen dira.

EAEko udalek adierazitako behar batetik sortu zen lan hau; izan ere, memoria-ekitaldiak sustatzeko orduan, ez zuten nahikoa informazio udalerrian izandako biktimei buruz. Dokumentu honek tresna erabilgarria izan nahi du udal-arduradunek memoriari buruzko proiektuak egiteko orduan herriko informazio guztia eskura izan dezaten.

Azken batean, iraganean nozitutako terrorismoaren eta indarkeriaren aurrean memoria kritikoa bultzatzeko betebeharrak instituzionalari erantzutea da kontua. Biktimen oroimena bizirik iraunarazteko memoria, eta orainaldian eta etorkizunean giza eskubideekiko behin betiko konpromisoa helarazten duena, bereziki, bizitzeko eskubidearen eta pertsonen duintasunaren errespetuarekiko konpromisoa.

Garrantzitsua da argi izatea memoriaren politika publiko baten helburua ez dela *omenaldiak* egitea. Bi helburu nagusi ditu, eta zentzu sozial eta politiko sakonagoa dute helburu horiek: biktimei dagokienez, gertatutakoa gogoraraztea, jasan zuten bidegabekeria aitortzea, eta haienganako elkartasuna adieraztea beste behin ere, eta, gizarteari dagokionez, berriz, gogoeta kritikoa sustatzea iraganean gertatutakotik berriz ere gertatu behar ez duenaz hausnartzeko, edo, aitzitik, gertatutako horretatik azpimarratu behar denaz hausnartzeko.

Liburuxka hauetako bakoitza berriz ere gertatu behar ez duenaren eta ahaztu behar ez denaren erretratu da. Dokumentuaren izenburuan *erretratua* hitza jasotzen da, erretratuak gizakiaren irudia erakusten duelako; aurpegia, begiak eta espresioa dituelako. Erretratuak pertsona jakin bat irudikatzen du; izen, abizen, familia, lagun, istorio, amets eta proiektuak dituen pertsona jakin bat. Biktimen sufrimendu bidegabekia hezurmamitzen duten aurpegiaren erretratua duzu dokumentu hau.

I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

1. **ETAm** eta **ETA**k bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Jose Maria Portell Manso

Data: 1978/06/28.

Adina: 44 urte.

Jaioterria: Barakaldo (Bizkaia).

Bizilekua: Portugaleta (Bizkaia).

Seme-alabak: Hiru alaba eta bi seme.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Kazetaria. Bilboko *Hoja de Lunes*en zuzendaria eta *La Gaceta del Norte*ko erredaktorea. Hainbat hedabide eta agentziatako korrespontsala ere bazen. Bitartekaritza-lanak egin zituen Espainiako Gobernuaren eta ETAREN artean. *Euskadi: la amnistía arrancada* (1977) eta *Los hombres de ETA* (1974) liburuen egilea.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Bere autoaren barruan, bere etxearen ondoan, Portugaleten.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

Datu gehiago: ETAk hildako lehen kazetaria izan zen.

2

Vicente Rubio Ereño

Data: 1978/12/09.

Adina: 60 urte.

Jaioterria: Barakaldo (Bizkaia).

Bizilekua: Santurtzi (Bizkaia).

Seme-alabak: Zazpi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Erretiratu. Armadako ofizialorde ohia, 1941etik 1943ra *División Azul*en ibilitakoa, Santurtziko udaltzainburu ohia eta Francoren Guardiako kide ohia. Falange Españolaren afiliatua.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Zarza tabernaren barruan, Jenaro Oraa kalean (Santurtzi).

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

Datu gehiago: Vicente Rubiorekin tabernan zegoen pertsona, Juan Gonzalez Fernandez, arin zauritu zuten tiroek.

3

Modesto Carriegas Perez

Data: 1979/09/13.

Adina: 47 urte.

Jaioterria: Artzentales (Bizkaia).

Bizilekua: Barakaldo (Bizkaia).

Seme-alabak: Bost seme-alaba.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Banco Hispano Americanoren (BHA) Barakaldoko sukurtsaleko zuzendaria. Unión Foral del País Vascoen hautagaia, Luis Olarra enpresaburuaren atzetik.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Bere etxeko atarian, Barakaldon.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

Datu gehiago: Urte bereko urtarrilaren 27an, ETApn-ko kideek ordu batzuetan bahitu zuten, bera zuzendari zen BHAn sukurtsalean lapurreta egiteko.

4

Jesus Garcia Garcia

Data: 1980/01/05.

Adina: 43 urte.

Jaioterria: Arrigorriaga (Bizkaia).

Bizilekua: Barakaldo (Bizkaia).

Seme-alabak: Hiru seme-alaba.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Ostalaria, Barakaldoko Yon Kola tabernako jabea. Bizkaiko Fuerza Nuevako kidea.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Barakaldoko bere establezimenduan.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

Datu gehiago: Bere izena -eta handik egun batzuetara hilko zuten Alfredo Ramosena ere bai-Xavier Vinaderren erreportaje batean agertu zen *Interviú* aldizkarian, Francisco Ros Frutos polizia nazional ohiak "talde inkontrolatuen" kide gisa aipatzen zituela. Polizia ohiak *Interviú* aldizkarian aipatutako biek ukatu egin zuten salatutakoa. Fuerza Nuevako militantearen kontrako atentatuaren ondoren, kazetari katalanak zazpi urteko kondena jaso zuen lanbide-zuhurtziagabekeria ausartegiagatik.

5

Alfredo Ramos Vazquez

Data: 1980/01/23.

Adina: 55 urte.

Jaioterria: Borrajeiros (Pontevedra).

Bizilekua: Barakaldo (Bizkaia).

Seme-alabak: Bi alaba.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Ostalaria. Barakaldoko Stadium tabernako jabea.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Barakaldoko bere establezimenduan emaztearen, alaba baten eta iloba baten aurrean bahitu, Trapagarango Zugaztietara eraman, galdekatu eta hil zuten.

Prozedura: Bahitu, galdekatu eta su-armaz tiro.

Datu gehiago: Bere izena -Jesus Garcia Garciarekin batera- Xavier Vinader kazetariaren erreportaje batean azaldu zen *Interviú* aldizkarian, "talde inkontrolatuen" kide gisa, Francisco Ros Frutos polizia nazional ohiaren esanetan. Beste pertsona batzuk eta haiek elkartzen ziren tabernak ere aipatzen ziren bertan. Atentatuaren ondoren, kazetari katalanak zazpi urteko kondena jaso zuen lanbide-zuhurtziagabekeria ausartegiagatik.

6

Vicente Sanchez Vicente

Data: 1981/04/08.

Adina: 32 urte.

Jaioterria: La Fuente de San Esteban (Salamanca).

Destinoa: Lehergaiak Indargabetzeko Lantaldea (Bilboko Poliziaren Burutza Gorena).

Seme-alabak: Bi alaba.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Polizia Nazionaleko kaporal.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Bere autoaren barruan zegoela, Barakaldoko Santa Teresa ikastetxearen aurrean, bere alabetako bat -Olga, 4 urtekoa- bertan utzi ondoren.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua. Hamaika tiro jo zizkieten bi kaputxadunek.

Datu gehiago: Bere jaioterriak -La Fuente de San Estebanek- kale bat eskaini zion 2015/03/21ean.

7

Magin Fernandez Ferrero

Data: 1981/07/05.

Adina: 44 urte.

Jaioterria: Villazala (León).

Bizilekua: Barakaldo (Bizkaia).

Seme-alabak: Semea eta alaba.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Armadako tenientea, IMECeko IV. zonan destinatua. Jaiegunitan, emazteak Barakaldon zeukan aldizkari-kioskoan laguntzen zuen.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Bera bizi zen Gaudi kaleko aldizkari-kioskora zihoala, Barakaldoko Zuhatzu auzoan.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua, gertutik. Hamar tiro jaso zituen.

8

Jose Aybar Yañez

Data: 1982/06/30.

Adina: 58 urte.

Jaioterria: Muskiz (Bizkaia).

Bizilekua: Barakaldo (Bizkaia).

Seme-alabak: Hiru seme-alaba.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: 1968tik aurrera, Barakaldoko udaltzainburua.

Egiletza: ETAm.

Lekua: Barakaldoko Ibarra kaleko Pepe tabernan zegoela, bi lagunekin kartetan.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua.

Datu gehiago: Erasotzaileetako bi zauritu egin ziren ETAm-ko komandoko kideen tiro gurutzatuengatik, eta hil egin zen haietako bat: Francisco Javier Zabaleta Urretabizkaia.

9

Maria Dolores Ledo Garcia

Gertakariaren data: 1983/05/04.

Adina: 25 urte.

Jaioterria: Barakaldo (Bizkaia).

Bizilekua: Bilbo (Bizkaia).

Seme-alabak: Haurdun zegoen.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: OHO 3ko irakaslea Bilboko Arabella auzoko Zumalakarregi ikastetxean.

Egiletza: ETAm.

Lekua: El Karmelo aparkalekuan, Bilboko Santutxu auzoan.

Prozedura: Su-armen bidez tiro eginda.

Datu gehiago: Bere senar polizia nazionalarekin zegoela, ETAko komando bat Polizia Nazionaleko teniente bat bahitu nahian hasi zen El Karmelo aparkalekuan, Bilbon. Senarrak aurre egin nahi, arauzko pistola atera, eta komandoko kideek hirurak hil zituzten tiroka.

10

Vicente Montoya Salazar

Atentatuaren data: 1987/09/25.

Heriotzaren eguna: 1987/10/02.

Adina: 42 urte.

Jaioterria: Langraiz Oka (Araba).

Bizilekua: Barakaldo (Bizkaia).

Seme-alabak: Bi seme.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Polizia Nazionaleko kidea. Bilboko Burutzako bizkartzainen zerbitzuko kidea.

Egiletza: ETA.

Lekua: Gurutzetako Ospitalea (Barakaldo). Barakaldoko La Paz auzoan, bere autoaren azpian ipinitako lapa-bonbaren eztandak larri zauritu zuen.

Prozedura: Lapa-bonba bidezko atentatua.

Datu gehiago: Eztandak emaztea ere harrapatu zuen -Crescencia Garcia Garcia-, bere etxeke balkoian zegoela, eta zauri arinak eragin zizkion.

11

Luis Alberto Sanchez Garcia

Data: 1990/09/02.

Adina: 28 urte.

Jaioterria: Barakaldo (Bizkaia).

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Bertan, ibilgailua konpontzen ari zen.

Egiletza: ETA.

Lekua: Uribitarteko portuan, Bilbon.

Prozedura: ETako kideek gidaririk gabeko bonba-auto bat bultzatu zuten aldapan behera, Guardia Zibilaren posturantz, eta urrutitik eragin zioten.

Datu gehiago: 22 urteko Jose Manuel Alba Morales hil zen, bonba-autoaren jomuga zen Zerbitzu Fiskaleko langilea. Era berean, Luis Alberto Sanchezi autoa gelditu eta konpondu nahian ari zen TAOko bi langilek lagunduta, eta leherketak zauritu egin zituen haiek ere: Anselmo Amezaga Regulez eta Julio Fernandez Fernandez. Eztandak zauritu egin zituen Mikel Suquia Mendinueta herritarra eta Juan Carlos Calzada Martin guardia zibila ere.

12

Francisco Diaz de Cerio Gomez

Data: 1991/01/31.

Adina: 41 urte.

Jaioterria: Barakaldo (Bizkaia).

Seme-alabak: Bi seme.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Iberdueroko langilea, lehenik Lemoizko zentral nuklearreko obretan, eta ondoren kontagailuak irakurtzen. UGT sindikatuan afiliatuta zegoen. 1974tik 1981era, guardia zibila izandakoa.

Egiletza: ETA.

Lekua: Bere etxetik irteterakoan, Bilboko Otxarkoaga auzoan.

Prozedura: Su-arma bidezko atentatua, gertutik.

Datu gehiago: Atentatuaren lekuraino joateko, etakideek Arriaga plazan taxi bat pistolaz lapurtu, taxilaria maletategian sartu, hura barruan zela Francisco Diaz de Cerio hil, eta Boluetan utzi zituzten taxia eta taxilaria.

13

Jose Manuel Cruz Martin

Data: 1991/04/08.

Adina: 27 urte.

Jaioterria: Huelva.

Seme-alabak: Seme-alabarik gabe.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Polizia Nazionalaren oinarrizko eskalako agentea.

Destinoa: 1989tik aurrera, Euskadi.

Egiletza: ETA.

Lekua: Barakaldoko Juan de Garai kalea.

Prozedura: Autoko atea behartu ondoren, gidariaren eserlekuaren azpian lapa-bonba jarrita. Hildakoa emaztearekin zen eta autoan sartu aurretik azpian begiratu zuen, baina barruan ez.

Datu gehiago: Catalina Rebollo Samaniego -hildako poliziaren emaztea-, larri zauritu eta bederatzi hilabetez ezinduta geratu zen hanketako zauriengatik. Zauriak jasan zituzten handik igarozten ari ziren Asier de la Matak (15 urte) eta Mari Carmen Alvarez Serranok (37 urte) ere.

14

Fernando Jimenez Pascual

Data: 1994/04/04.

Adina: 29 urte.

Jaioterria: Barakaldo (Bizkaia).

Seme-alabak: Alaba bat.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Guardia Zibileko guardia bigarrena.

Destinoa: Bizkaiko Gobernu Zibileko Zaintza Zerbitzua.

Egiletza: ETA.

Lekua: Bere autoaren barruan, bere Bilboko etxe ondoan emaztearen eta alabaren zain zegoe-la, gidariaren eserlekuaren azpian zegoen objektu bat hartzean.

Prozedura: Lapa-bonba bidezko atentatua.

Datu gehiago: Zauriak jasan zituen oinezko batek: Silvia Gonzalez Chavesek.

15

Modesto Rico Pasarin

Data: 1997/02/17.

Adina: 33 urte.

Jaioterria: Barakaldo (Bizkaia).

Bizilekua: Santutxu, Bilbo (Bizkaia).

Seme-alabak: Seme-alabarik gabe.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Polizia Nazionaleko kidea.

Destinoa: Bizkaiko Probintzia Auzitegia.

Egiletza: ETA.

Lekua: Bilboko Santutxu auzoko Santiago Lasalle plazaren eta Menéndez y Pelayo artean, bere autoaren azpiko lapa-bonba bat lehertuta.

Prozedura: Autoaren barruan lapa-bonba ipinita.

16

Eduardo Puelles Garcia

Data: 2009/06/19.

Adina: 49 urte.

Jaioterria: Barakaldo (Bizkaia).

Bizilekua: Arrigorriaga (Bizkaia).

Seme-alabak: Bi seme.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: 2002tik aurrera, Bilboko Polizia Nazionaleko Informazio Brigadako inspektore burua.

Destinoa: 1991tik aurrera, Bilboko Indautxu komisaria. Lehenago, Alacant, Irun eta Portugaleteko komisarietan jardun zuen.

Egiletza: ETA.

Lekua: Arrigorriagako San Migel kaleko aparkaleku batean, automobila abiaraztean.

Prozedura: Automobilaren erregai-deposituaren alboan lapa-bonba bat jarrita.

Datu gehiago: Eusko Legebiltzarrak omenaldia egin zion handik hiru egunera, ekainaren 22an.

I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

2. **Segurtasun-indarrek** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Francisco Nuñez Fernandez

Gertakariaren data: 1977/05/17.

Heriotzaren eguna: 1977/05/30.

Adina: 38 urte.

Jaioterria: Barakaldo (Bizkaia).

Bizilekua: Bilbo (Bizkaia).

Seme-alabak: Alaba bat.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Matematika-irakaslea.

Egiletza: Kalez jantzitako polizia armatuak.

Lekua: Bilboko Ospitale Zibila, hamahiru egunez bertan egon ondoren odol-jario eta -gonbitoekin.

Prozedura: 15ean, Bilbon, poliziak amnistiaren aldeko protesta baten kontra kargatzean, ezkaratz batean babesten saiatu -hiru urteko alabarekin-, poliziak jo, eta epaitegian salaketa aurkeztu ondoren, jipoitu, bahitu, eta errizino-olioa eta koñaka irentsarazi zioten inbutu batekin; horrek urdaila txikitu zion.

Datu gehiago: Bilboko Polizia Burutzako idazkari nagusiak den-dena ukatu zuen. Gaixotasu-
nean eta heriotzan biktima artatu zuen Bilboko Ospitale Zibileko Fariñas doktorearen arabera,
baina -1977/06/02ko *El País*ek dioen moduan-, ospitaleratu zutenean, kolpeak zeuzkan bizka-
rrean eta ipurmasailetan. Biktima hil eta handik gutxira, polizia bat agertu zen haren etxean, alar-
gunari dirua eskaintzeko, baina hark uko egin zion. 2000. urtean, alaba -Ines Nuñez- Bizkaiko
Gobernu Zibilera joan zen, eta 1999an onartutako terrorismoaren biktimen legearen barruan sar-
tzeko eskabide-eredu bat eskatu zuen. Egun bereko arratsaldean, ama eta biak hiltzeko meha-
txuak egin zizkien ezezagun batek telefonoz. Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren
12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

2

Efren Torres Abrisqueta

Data: 1978/01/24.

Adina: 18 urte.

Jaioterria: Barakaldo (Bizkaia).

Bizilekua: Bilbo (Bizkaia).

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Ikaslea.

Egiletza: Guardia Zibila.

Lekua: Bilboko Buya auzoan.

Prozedura: Su-armaz egindako tiroak.

Datu gehiago: Ibilgailuan zihoazen beste biak -Pablo Ramirez Lizarri, 19 urtekoa, eta Roberto Hernando Herrero, 17 urtekoa- balaz zauritu ziren, bigarrena oso larri. Zeramatan ibilgailua lapurtu zutela leporatu zien Guardia Zibilak. Antzeko hainbeste kasu egon zirenez, 1981/04/18an, Barne Ministerioaren Batzorde batean honela esan zuen Javier Saenz de Cosculluelak -PSOeko diputatua-, Felipe González-en Gobernuan ministro izango zenak: "ez dira indarkeriazko eraso bati erantzuten dioten eta norberaren bizitza arriskuan dauden salbuespenak", eta ezin dira justifikatu, "gelditzeko agindu bat aintzat ez hartzeko arrazoiak txikiak edo ñimiñoak izan arren". "Praktikan -gehitu zuen-, nik lhes Legea deitu diodana aplikatzea exekuzio bat baino ez da".

3

Domingo Hernando Garcia

Data: 1980/07/30.

Adina: 17 urte.

Jaioterria: Barakaldo (Bizkaia).

Bizilekua: Otxarkoaga, Bilbo (Bizkaia).

Seme-alabak: Seme-alabarik gabe.

Egiletza: Kalez jantzitako polizia nazional bat, Logroñoeko lehen erreserba-konpainiako kidea.

Lekua: Yale klubaren atarian, Bilboko Gorte auzoan.

Prozedura: Su-arma batez buruan tiro bat jota.

Datu gehiago: Poliziak "berehala egin zuen ihes" (*El País*, 1980/07/31). Ordena Publikoko Indarren beste kide batekin zegoen, eta elkarri "irain batzuk" egin zizkioten hildakoak eta biak. Egunkari horren arabera, hildakoak aurrekari polizialak zituen. Gobernu-agintaritzak polizia nazionala atxilotzeko agindu zuen. Kalez jantzitako poliziek 13 pertsona hil zituzten Trantsizioan, Euskadin eta Nafarroan, gehienak ostalaritzako establezimenduetan, arauzko armekin eta zerbitzuz kanpora zeudela.

4

Luis Quintana Monasterio

Data: 1980/09/06.

Adina: 46 urte.

Bizilekua: Barakaldo (Bizkaia).

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Babcock Wilcoxeke langilea. PSE-PSOeko militantea. UGT sindikatuan afiliatuta zegoen. Barakaldo futbol-taldeko jokalaria ohia.

Egiletza: Kalez jantzitako polizia bat.

Lekua: Bilboko Gorteetako Aintzira kalean, Harrobi plazarantz.

Prozedura: Su-armaz egindako tiroa.

Datu gehiago: Poliziaren tiroek hiru pertsona zauritu zituzten. Las Vegas tabernako jabeak eta zenbait bezerok 1980/09/07an *El País*i kontatu ziotenez, erasotzaileak bi emakume jipoitu zituen, eta bati lepoan ipini zion pistola. Pertsona batzuek gogor egin ziotenean, ez zuen identifikazio-plakarik erakutsi nahi izan eta tiro egin zuen airera, "Denok hilko zaituztet" garrasika. Aintzira kalean ihesi zihoala, tiro batzuk jo zituen jendearen aldera. Haietako batek hil zuen Luis Quintana. Kalez jantzitako poliziek 13 pertsona hil zituzten Trantsizioan, Euskadin eta Nafarroan, gehienak ostalaritzako establezimenduetan, arauzko armekin eta zerbitzuz kanpora zeudela.

I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

3. **Egiletza argitu gabe** duten urraketak **eta** **bestelakoak**

1

Miguel Gordo Garcia

Data: 1976/04/11.

Adina: 41 urte.

Jaioterria: Villambrán de Cea (Palentzia).

Destinoa: Barakaldo (Bizkaia).

Seme-alabak: Seme bat.

Lanbidea: Guardia Zibileko lehergaiak indargabetzeko teknikaria.

Egiletza: Elektrokutatua hil zen.

Lekua: Barakaldo. Hilda iritsi zen Gurutzetako erresidentziara.

Prozedura: Deskarga elektrikoa.

Datu gehiago: Guardia Zibilaren informazioaren arabera, agentea -Tedaxeko profesionala- elektrokutatua hil zen, aliketekin moztu nahi izan zuenean ikurrin bat linea elektriko baten kablearekin lotzen zuen uztai metaliko bat, herriko kale batean. Barne Ministerioak terrorismoaren biktimatzat dauka.

2

Francisco Herrera Jimenez

Desagertutako data: 1988/09/26.

Gorputza agertutako data: 1988/09/30.

Adina: 38 urte.

Jaioterria: Torremejía (Badajoz).

Bizilekua: Barakaldo (Bizkaia).

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Segurtasun-langilea zen Sestaoko La Naval ontzian. PSEko militantea zen eta Barakaldoko PSE-PSOE taldeko idazkaria izan zen.

Egiletza: Baldintza nahasiak.

Lekua: 26an desagertu, eta eskuak lotuta eta zuhaitz batean urkatuta azaldu zen 30ean, Barakaldo inguruan.

Prozedura: Zuhaitz batean urkatuta.

Datu gehiago: Espainiako Barne Ministerioak biktima bezala errekonozitu zuen. Herriko alkate Jose Maria Rodriguez Orrantia esanetan, "ez da ETA izan". PSEko idazkari nagusi Ricardo Garcia Damboreneak ere 1ean adierazi zuenez, "itxura guztien arabera, ez dago arrazoi oso onik ETA izan denik susmatzeko" (*El País*). Honela diote Callejak eta Sanchez-Cuencak: "Eten-gabeko mehatxuak eta jazarpena egin zion ETAk, edo ETatik oso gertu zegoen jendeak. Presioa gehiago jasan ezin eta bere burua urkatu zuen" (*La derrota de ETA*: 181). Azkenean bahiketaren hipotesia baztertu eta ABCk ez du aipatzen "Todas las víctimas de la banda terrorista" berezian. Ezta Fundación Víctimas del Terrorismo, Covite, AVT eta *Vidas Rotasek* ere.

II. Behar beste argitu ez diren **kasuak**

1

Gonzalo Pequeño Moyano

Data: 1977/10/14.

Adina: 21 urte.

Bizilekua: Sestao (Bizkaia).

Lekua: Lutxanan (Barakaldo), Bilboko Zorrotza auzotik gertu, goizaldeko 01:00ak aldera.

Prozedura: Trafiko-istripua, su-arma baten tiroen ondorioz.

Datu gehiago: Argibide urriko kasua. Biktimaren anaia –Luis Javier, 16 urtekoa– zauritu egin zen. Ohar ofizialaren arabera, autoa egun batzuk lehenago lapurtutakoa zen, eta Guardia Zibilak botatako tiroetatik bakar batek jo zuen gidariaren ate azpian. Ibilgailuak farolaren kontra jotzeak eragindako zauri larriengatik hil zen Gonzalo Pequeño, bi anaiak makurtu egin baitziren Guardia Zibilaren tiroak saihesteko. 1970 eta 1979 artean, 15 pertsona hil eta 25 zauritu ziren horren antzeko kontroletan. Ordu batzuk lehenago, ETAk atentatu bat egin zuen Villabonan (Gipuzkoa). Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzaren *Asmo politikoko indarkeriaren ondoriozko giza eskubideen urraketen biktimak* txostenean jasota dago kasu hori (2008ko ekaina).

2

Felipe Carro Flores

Data: 1978/06/26.

Adina: 15 urte, zortzi anai-arrebetan bigarrena.

Jaioterria: Gurutzeta (Barakaldo)

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Ikaslea.

Egiletza: Guardia Zibileko Zerbitzuen Zentro Operatiboko ibilgailu bateko agenteak.

Lekua: Ezkerreko hemotoraxean larri zauritu zen Sestaoko Alfonso Txurruka plazan, eta hilda iritsi zen Gurutzetako Ospitalera.

Prozedura: Nonbait, identifikatuak izatera zihoazenean, autotik ihesari eman eta tiro egin zioten (*El País*, 1978/06/27). Goizaldeko 04:45ak ziren (*ABC*, 1978/06/27).

Datu gehiago: Eusko Kontseilu Nagusiko Herrizaingo Sailaren komunikatu batek gogor kritikatu zuen indar publikoaren jardura hura. Antzeko adierazpenak egin zituzten euskal ezkerreko hamahiru alderdik (*El País*, 1978/06/27). Botere-abusua eta indarra neurrigabe erabiltzea salatu zuten, bai eta zigorgabetasuna ere, eta "horrek frogatzen du ekintzen izaera politikoa".

3

Jose Luis Sancha Lasa

Data: 1980/10/16.

Adina: 17 urte.

Jaioterria: Barakaldo (Bizkaia).

LANBIDEA, KARGUA, BESTE BATZUK: Zerbitzari langabea. Lanean aritu izandako tabernako jabearen esanetan, berarentzat lan egin zuen bitartean, gazteak "zuzen jokatu zuen" (*ABC*, 1980/10/17).

Egiletza: Kalez jantzitako polizia bat.

Lekua: Barakaldoko Los Arcos taberna.

Prozedura: Su-armaz egindako tiroa.

Datu gehiago: Argibide urriko kasua da. Gurasoek hurrengo egunean izan zuten semearen heriotzaren berri, irratiz entzunda. Bertsio ofizialaren arabera, Barakaldoko Komisariako inspektoreak eta 091ko bi autotako polizia agertu ziren 24:00ak aldera Los Arcos tabernan, "hango bezeroak identifikatzeko, drogazaleen eta gaizkileen biltokia baitzen" (*ABC*, 1980/10/17). Hala, "istripuz, poliziaren armak tiro egin eta jaurtigai batek gaztea jo zuen". 1980/10/16ko *El País*en arabera, "lekukoek bertsio ofiziala gezurtatu dute, tabernan ez omen zen borrokarik egon, eta biktimak ez zion aurre egin poliziari". Bertsio horren arabera, hildakoak "ez zuen eztabaidetan parte hartu". Kalez jantzitako poliziek 13 pertsona hil zituzten Trantsizioan, Euskadin eta Nafarroan, gehienak ostalaritzako establezimenduetan, arauzko armekin eta zerbitzuz kanpora zeudela.

4

Angel Gonzalez Nieto

Data: 1988/06/29.

Adina: 57 urte.

Jaioterria: Albos del Cigarral (Ourense).

Bizilekua: Barakaldo (Bizkaia).

Seme-alabak: Bi alaba.

Lanbidea, kargua, beste batzuk: Barakaldoko Coromoto tabernako jabea.

Egiletza: Guardia zibil ohi bat.

Heriotzaren lekua: Bi tiro jo zizkioten bere etxetik gertu, Errekaortu auzoko Galsua kalean, Barakaldon.

Prozedura: Su-armaz egindako tiroak, FASen munizioa.

Datu gehiago: Argibide urriko eta bertsio nahasiak dituen kasua da. Guardia zibil ohiak, 51 urtekoak, bere buruaz beste egin zuen biharamunean, Barakaldon alokatuta zeukan etxebizitzan, guardia zibilak etxera joan zitzaizkionean Angel Gonzalezen heriotzaz galdekatzeko. Coromoto tabernako jabea hil zuen pistola beraz egin zuen bere buruaz beste. Beste norbaitekin nahasi ote zuen zabaldu zen. Bizkaiko Gobernu Zibileko iturrien arabera, 1985ean autoa erre zioten biktimari, eta handik sei hilabetera berriro erretzen saiatu ziren (*ABC*, 1988/06/30).

Erabilitako iturri eta zerrendak

- ABC: *ABC Especiales, Todas las víctimas del terror*, www.abc.es/especiales/eta/victimas
- Alonso, Rogelio, Florencio Domínguez y Marcos García Rey, *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Espasa, Madril, 2010.
- Arartekoa: *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta*, Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia, 2009ko ekaina.
- Argituz (Giza Eskubideen Aldeko Elkarte), www.argituz.org
- Arovite, Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutua (UPV-EHU). www.arovite.com/bases-de-datos/
- AVT (Terrorismoaren Biktimen Elkarte). www.avt.org
- Barne Ministerioa. www.interior.gob.es/
- Calleja, Jose Maria; Sanchez-Cuenca, Ignacio: *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima*, Adhara, Madril, 2006.
- Covite (Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarte). www.covite.org
- Egin: *Anuarios 1977-1982 eta Anuarios 1982-1997*.
- El Correo. <http://especiales.elcorreo.com/2006/eta/index.html>
- El País: *Las Víctimas*. www.elpais.com/especial/eta/victimas.html
- Euskal Memoria Fundazioa: *Datu-basea*. www.euskalmemoria.com
- Eusko Jaurlaritza. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/
- Fernando Buesa Blanco Fundazioa (dokumenta- zio- eta ikerketa-zentroa). www.fundacionfernandobuesa.com
- Fonseca, Carlos (koord.). 1960. eta 2014. *urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua*. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egina. Eusko Jaurlaritza. 2014ko abendua.
- Giza Eskubideen Zuzendaritza: *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen eta sufrimendu bidegabeen biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es
- Juan March Fundazioa. Espainiako trantsizioari buruzko Linz artxiboa. CEACS. www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/

- Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Dokumentaziounea. www.lbfundazioa.org
- Libertad Digital: *In Memoriam: No olvidar lo inolvidable*. www.blogs.libertaddigital.com/in-memoriam/
- Marrodan, Javier; Araluce, Gonzalo; Garcia de Leaniz, Rocio; Jimenez, Maria: *Relatos de plomo. Historia del terrorismo en Navarra 1960-86*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2013.
- Nuñez, Luis (koord.): *Euskal Herria y la Libertad* (8 lib.), Tafalla, Txalaparta, 1993.
- Pulgar Gutierrez, Belen: *Víctimas del Terrorismo: 1968-2004*, Madril, Dykinson, 2004.
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa. www.fundacionvt.org
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa: *Asesinatos de ETA en Álava*. www.alava.net
- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza: *Kontrolatu gabeko taldeen, eskuin muturreko taldeen eta GALen terrorismoak eragindako biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.interior.ejgv.euskadi.net/r42440/es/contenidos/informacion/informacion_documentos_interes/es_document/adjuntos/informe%20final.pdf
- Vasco Press Agentzia: "Crónica de documentación y actualidad", 1.176. alea, 2004ko abuztua.
- Zenbait egunkari: *ABC, Berria, Deia, Diario de Noticias, Egin, El Correo, El Diario Vasco, El Mundo, El País, Euskaldunon Egunkaria, Gara, Hitz, La Razón, La Vanguardia, Noticias de Álava, Noticias de Gipuzkoa*.